# BERGARA-KO EUSKAL-FESTAK

## Euskal-itz-jostaldien egintza

Donostiako Euslkal-itz-jostaldien Batzarrea dator gaur Bergara-ra, kontu ematera, bear dan errespetoarekiñ, leku au onratzen duten entzule guztiai, zer nolakoa dan, aurten, izkribatzalle eta musikalarien indar neurtzeetan, batzar epalle bereziak erabaki duten sari emaldia.

Arreta aundiz esamiñatu ondoren aurkeztu diran moldaera guziak, irabazi dituzte SARIYAK, izkribatzalleen artean: On Eugenio Urroz, On Paulo Zamarripa eta On Victoriano Iraolak, *Bergara-ko dakiregia, Euskal-erriko Aiñgeru Jagolari, eta On Jabier Maria Munibe eta Idiakez, Peñaflorida-ko kondeari alabantzak izendatzen* diranak-gatik.

Gañera On Blas Fradere jaunak irabazi ditu bi sari: *Bergara-ko seme argidotarrak* eta *Aitzbeltz-eko luzuloa* izendatua gatik, eta bese irugarren sari berri bat *Peñaflorida-ko kondia, Lurbirako adiskiden alkarkida lenengo ipiñi zubana* izentzat duena gatik.—Irabazi dituzte ALDEERAK: On Gregorio Sasieta, On Blas Pradere, On Elías Goroztidi, On José Ignacio Garmendia eta On José Artolak, *Bergarako seme argidotarren berriak, Bergarako aziteche jakintsu duikintar erregezkoa, Artadi-ko alaba, Gipuzkoako arboladi berritza, eta Euskerazko kontuak* izendatuakgatik.— Irabazi dituzte AIPAMEN ONRAGARRIYAK: On José Ignacio Garmendia eta On Enrike Elizecheak,

*Jayoterria eta Mendiyen diabetatzean gañian itz labur batzuek* izentzat dituztenengatik.

Musikalarien artean irabazi dituzte SARIYAK: On José Rodoreda eta On Santos Inchausti-koak eta bi sari On Valentin Larreak, *Euskaldun lotozkari illezkorra-ri, Laurak bat, Machin* eta *Sorterri* azalkaitzat dituzten zortziko eta euskal-kanta moldaerakgatik.

Bergaran 1905-ko Urrillaren 8-an.

BATZARREAREN IZENEAN:

DIANAGUSIA, *Alfredo Laffitte-koa*

GOARPELARIA, *Toribio Alzaga*